

Gomendioak

1. Errepideetako seinaleztapen dinamikoaren inguruan egingo diren jarduketak Foru Aldundiko Errepide Departamentuaren onespena beharko dute.

Teknikarien lana erraztearren, gomendagarria da proiektuarekin batera ondokoa aurkeztea:

- Seinaleen maketak beren jatorrizko koloreekin eta neurri errealekin.
- Seinaleen kokapenak plano baten gainean aurkitzeko moduan adierazirik, puntu kilometrikoa ere aipatuz.

2. Seinale baten eraketan eta diseinuan aldagai ugari biltzen dira: hitzen kopurua, letren tamaina, piktogramen tamaina, kokapenaren ezaugarriak, trafikoaren abiadura... Alderdi hauek guztiak aztertu eta zaindu egin behar dira, seinalea irakurri ahal izateko baldintzarik egokienak lor daitezzen.

3. Piktograma, ideia jakin bat azkar eta modu errazean ulertzeko balio duen sinboloa da. Piktograma zenbat eta uniformeago izan, orduan eta eraginkortasun handiagoa izango du. Beraz, nazioartean erabiltzen diren sinboloak erabili behar dira, eredu hauetatik aldentzen direnak baztertuz.

4. Ondare historiko artistikoari buruzko seinaleztapenean zuhurtasun handiz aritu behar da edozein jarduketa egiten dela ere. Lehenik, eraikinak zein mota edo kategoria juridikoa duen ezagutu behar dugu eta, ondorioz, egoera partikular horrek zertara behartzen gaituen jakin.

Seinalearen kokapena arretarik handienaz zaindu behar dugu, baita ezarpen-sistema ere, eraikinak inolako kalterik jasan ez dezan.

Azkenik, seinalean eduki historiko artistikoa duen edozein idazpen egin behar bada, Foru Aldundiko Ondare Zuzendaritzarekin kontsentsuatu beharko da alde zuzenetik.

Recomendaciones

1. Las actuaciones en materia de señalización dinámica en carretera, deben contar con la aprobación del Departamento de Carreteras de la Diputación Foral.

Para facilitar la labor de los técnicos es recomendable presentar el proyecto acompañado por:

- Las maquetas de las señales con sus colores originales y dimensiones reales.
- La localización de los emplazamientos de las señales sobre un plano, con indicación del punto kilométrico.

2. En la construcción y diseño de una señal concurren muchas variables: número de palabras, tamaño de la letra, tamaño de los pictogramas, características del emplazamiento, velocidad de tránsito... Todos estos aspectos deben ser estudiados y cuidados en extremo, para que la legibilidad de la señal sea la más adecuada.

3. Un pictograma es un símbolo que sirve para asociar una idea de un modo rápido y sencillo. Su eficacia es mayor cuanto mayor es su uniformidad. Por esta razón han de utilizarse símbolos de uso internacional, rechazando cualquier pictograma que no obedezca a estos patrones.

4. Cualquier actuación en materia de señalización sobre el patrimonio histórico artístico ha de realizarse con suma prudencia. En primer lugar, debemos conocer el tipo o categoría jurídica a la que pertenece el edificio, y en consecuencia a lo que esta situación particular nos obliga.

Debemos cuidar en extremo el emplazamiento de la señal, así como el sistema de colocación, de suerte que el edificio no resulte dañado.

Por último, es recomendable que cualquier inscripción de contenido histórico artístico que se realice en la señal sea previamente consensuada con la Dirección de Patrimonio de la Diputación Foral.